

## **2016KO EKAINAREN 20AN BATZORDE IRAUNKORRAK EGIN ZUEN BILKURAKO AKTA.-**

Tolosako udaletxearen Pleno aretoan egin du bilera 2016ko ekainaren 20an, 18:40etan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

### **BERTARATUAK:**

BATZORDEAREN LEHENDAKARIA (%0,77): Josu Amilibia Alsua  
BERASTEGIKO UDALA (%1,72): Amaia Azkue Eizagirre  
BERROBIKO UDALA (%0,93): Joseba Iñigo Aiertza Mujika  
IBARRAKO UDALA (%6,95): Mikel Agirrezabala Ezkurdia  
IRURAKO UDALA (%2,73): Jesus Maria Alonso Insausti  
LARRAULGO UDALA (%0,42): Aritz Sarria Sarasqueta  
TOLOSAKO UDALA (%30,91): Patxi Amantegi Zubiria  
ZIZURKILGO UDALA (%4,89): Aitor Sarasua Arruti

### **ETORRI EZ DIRENAK:**

ALEGIAKO UDALA (%2,85)  
ASTEASUKO UDALA (%2,49)  
VILLABONAKO UDALA (%9,61)

## **GAI ZERRENDA**

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. 2015eko irailaren 21eko Batzorde Iraunkorraren Akta onartzea.**
- 2. 2015 ekitaldiko aurrekontuaren Kontu Orokorraren berri ematea**
- 3. Galde-erreguak**

Mankomunitatearen Idazkari den Jose Luis Unanuek eman dio fede ekintzari, Gemma Eceiza Mankomunitateko teknikariaren aurrean.

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

### **1. 2015eko irailaren 21eko Batzorde Iraunkorraren Akta onartzea.**

Izenburuan adierazitako akta ahobatez onartu da.



## **2. 2015 ekitaldiko aurrekontuaren Kontu Orokorra**

Mankomunitateko Kontuhartzaileak hartu du hitza, 2015eko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorraren berri emateko, eta horri loturik jarraitu beharreko prozedura azaltzeko. Hurrengo pausoa Kontu Orokorraren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea izango da, alegazioak egiteko hamabost eguneko epea ezarriz. Behin epe hori igarota, egiten den hurrengo Batzarraren esku geratuko da Kontu Orokorraren behin betiko onspena, eta ondoren, Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko da.

Bestalde, Idazkariak gogorazi du 2015eko uztailaren 23ko Batzarraren ohiko bilkuran onartu zela Batzorde Iraunkorriari ahalmena ematea Kontuetarako Batzorde Berezi gisa aritzeko.

Hala bada, Kontuetarako Batzorde Bereziak (Batzorde Iraunkorriak) ez dio inolako eragozpenik jarri eta oniritzia eman dio 2015eko Kontu Orokorraren espedienteari eta jakinaren gainean geratu da.

## **3. Galde-erreguak**

Mankomunitateko Teknikariak hartu du hitza, gai-zerrendan barneratu ez den gai bat azaltzeko. Izan ere, kontrataziorako bi prozedura eraman dira aurrera Mankomunitatean, batetik “papera/kartoia eta ontzi arinen gaikako bilketarako albo-kargako edukiontzien hornikuntza” eta, bestetik, “Andoainen materia organikoaren bilketa ezartzeko komunikazio kanpaina garatzeko zerbitzua”, eta biak Lehendakariaren Ebazpen bidez izapidetu dira, zuten presazko izaeragatik. Edonola ere, kontratazio hauek egiteko eskumena Batzorde Iraunkorriarena denez, honen berrespena eskatzen da.

Batzorde Iraunkorriak ez die inolako eragozpenik jarri bi kontratazio-prozedura hauei, eta Lehendakariaren ebazpenak aho batez berretsi dira.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko zazpiak laurden gutxiagotan (18:45), Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazki naizenak, guztia ziurtatzen dut.

**LEHENDAKARIA**

**IDAZKARIA**

